



TOKIKOM



**“Gauza asko laga ditut  
nota onak ateratzeko”**

Beatriz Alvarez





3 LOGELAKO  
ETXEBIZITZAK  
230.000 €-tik  
HASITA  
ELGOIBAR



## ZURE ETXEBIZITZA BERRIA ELGOIBARREN

**UBITARTE**  
BIZIGUNEA

- 32 Etxebizitza eta garaje berri ingurune paregabea
- Etxebizitza zure neurria egokitzeko aukera
- Duplex atikoak solariumarekin
- Behe solairuak terraza handi eta txokoekin
- Diseinuzko sukalde ekipatuak
- Lehen salmentetarako aukera bereziak

**Garajeak salgai.**

943 744 303

[www.ubitarTE.com](http://www.ubitarTE.com)

SAN BARTOLOME 16.NEAN GAUDE. ETOR ZAITEZ!



**Unai  
Arrieta**

Aspaldian nire barruan bihurriturik daukadan korapilo bat askatu nahi nuke, Zuhaitz. Ez nator mendeku-gosez, ez dakart asmo ezkuturik. Isilean pasa ditut azken bi urteak, mutu, eta barrena askatu nahi nuke, besterik ez.



**Zuhaitz  
Gurrutxaga**

Joan den astean bilduzen Eibarko Arrate eskubaloitaldeko bazkidedunen batzarrak klubaren desegitea eta likidazioa onartu zituen.

Arrate azken urteetan ikaragarritzko zorretan itota zebilen. Askok eta askotarikoak gara zor horren hartzekodunak. Arrateren 64 urtetako bizitzak ordea, desagerpenarekin zuen zorrik handiena.

Eibarko taldea utzi nuenetik (duela bi urte), pena etsiaz bizi izan ditut handik iristen zitzaizkidan berriak. Elgoibarko taldean (egungo Sanlon) hasi nuen nire eskubaloia ibilia, ondoren Arrateko hazteko aukera eskaini zidan. Duela bi urte, taldeak bere historian izan duen lorpenik sekulakoenean, Europan jokatzeko aukera ere izan nuen. Bizi izan genuen ilusio hark, ordea, gertu zuen hondamena.

**“Izango al dute eibartar gaztetxoek eskubaloiaz gozatzeko aukerarik?”**

Minduta nago Zuhaitz, oso minduta zuzendaritzak bere betebeharreran erakutsi duen arduragabekeriagatik eta azken unera arte erakutsi duten jarreragatik. Inongo erreparorik gabe, urteetan taldeari bizia eman dioten erakundeen aurka oldartu dira. Nola liteke norbere etxeko lanak egin gabe, besteari errua botatzea! Pena eta min etsitu honetatik, auto-kritikaren bat besterik ez nuen entzun nahi, egin dituzten hanka-sartzen eta eragin duten sufrimenduaren gaineko *mea culpa*ren bat. Ez dugu ordea halakorik entzun. Estilo kontua izango da, urte luzeetan zuzendaritza horren bereizgarri izan den estiloa.

Gaur kezka handi batek nauka harrapatuta: izango al dute hemen-dik aurrera eibartar gaztetxoek eskubaloiaz gozatzeko aukerarik?

Penagarria da bai, Unai, hainbeste urtetako historia duen klubaren desagerpena. Argi dago garaiotan, horrenbeste aipatutako krisiak txoko guztietan sartu duela burua, eta noski, eliteko kirolak ere ezin izan dio etxeko aterik itxi. Lemoa aldean ere aurten estu ibiliko garelakoan nago. 3.000 biztanle dauzkan herrian, futbol talde bat 2B mailan mantentzea ez da xamura, ez horixe. Gero eta jende gutxiagok du patrikan dirua soberan, klubeko bazkide egin ahal izateko. Bizkaiko Foru Aldundiak diru-laguntzak murriztu behar izan ditu, eta gainera bi talde bizkaitar gehiago iritsi dira gure mailara, beraz, dirulaguntza hori denon artean banatu beharko dugu. Azkenik publizitate paneletan iragartzen diren enpresek ere ez dute lehen bezain fin ordaintzeko ahalbiderik. Azken egunotan klubeko langileek (boluntarioek), pintura beltzez iragarki horiek nola estaltzen zituzten ikusi ahal izan dugu. Beltz dago panorama, bai, baina badaukat sinismena, lemoar klubeko zuzendariak krisiak baldintzatuta egonik, ez dutela jasotzea espero dutena baino diru gehiago agindu, gu, jokalarion kontratuetan. Hala izan bedi.

**“Ea berandu baino lehenago Ipuruako kantxan goi mailako jokoa ikusteko aukera dagoen”**

Kontua da, zoritxarrez, Eibarko Arrate klubak dirudien ezin izan diola garaiotako baldintza ekonomiko kaxkarrari aurre egin. Ez daukat, zuk daukazun informaziorik, klubean izan diren hanka-sartzei buruz, baina, ea Eibarren eskubaloia maite duen jendea baten den, elkarrekin lan eginez, berandu baino lehenago Ipuruako kantxan berriro ere goi mailako jokoa ikusteko aukera egon dadin.

**ESKERTZA**

**MANUEL ETXEBERRIA UNZETABARRENETXEA**



2011ko irailaren 6an hil zen.  
Bihotzez eskertzen ditugu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



# BEATRIZ ALVAREZ

9'8 NOTA ATERA DU  
UNIBERTSITATERAKO  
HAUTAPROBAN

“10 urterekin  
erabaki nuen  
kazetaria izan  
nahi nuela”

Beatriz Alvarez elgoibartarrak 9,8 nota atera du unibertsitaterako hautaprobak, eta berea izan da Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako notarik onena. Pozik hartu du albistea, eta orain arte egindako ahaleginaren saria izan dela adierazi du, izan ere, emaitza onak lortzeko gauza asko albo batera laga behar izan dituela aitortu du. Pilar ikastetxean hasi zituen ikasketak Beatrizek, eta ikastetxea ixteko zurrumurruak hasi zirenean, Eibarko Aldatze ikastetxea aukeratu zuen ikasketekin jarraitzeko. Hantxe egin du Batxilergoa, eta datorren urtean Madrilera joango da unibertsitate ikasketak egitera. Hautaprobako notarekin unibertsitate guztietako ateak zabaldu zaizkio, baina berak oso argi zeukan zer ikasi nahi zuen: Kazetaritza eta ikusentzunezko gradu bikoitza egingo du Francisco de Vitoria unibertsitatean. Etorkizunean irratian lan egitea da bere ametsa.

## **Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako notarik onena atera duzu unibertsitateko hautaprobetan. Nola hartu zenuen albistea?**

Egia esateko urduri nengoen, argi neukalako gradu bikoitza egin nahi nuela Madrilen, eta horretarako nota lortu nahi nuen. Ez zuten oso nota altua eskatzen, baina ez nengoen lasai. Nota ikusi nuenean sekulako sorpresa hartu nuen, ez bainuen espero horrelako nota altua ateratzea. Hautaprobetan ez dakizu nork zuzenduko duen zure azterketa edo zer puntuatuko duten, eta horrek ikara sortzen du. Oso pozik jarri nintzen emaitza jakitean. Ondoren, beka batekin Europan zehar bidaia bat egitera joan nintzen hiru astez, eta handik bueltan netorrela, amaren mezua jaso nuen telefonoan, lehen bailehen etxera deitzeko esanez. Zerbait txarra gertatu zela pentsatu nuen, eta berehala deitu nuen. Amak esan zidan kazetari batek deitu zuela nigatik galdezka, hautaprobetan Gipuzkoako notarik onena atera nuelako. Egunkaria irakurri nuenean jakin nuen Gipuzkoako ez ezik, Bizkaiko eta Arabako notarik onena zela nirea.

**“Egindakoaz harro nago, baina emaitzagatik baino gehiago, egindako ahaleginagatik”**

### **Zer esan dizu inguruko jendeak?**

Denek zoriondu naute. Etxekoak ere oso pozik daude, eta amak esan dit kalean jende askok zoriondu duela. Herriko jendea oso ondo portatu da gurekin.

### **Nola bizi izan zenuen hautaprobak?**

Zoritzeko moduko egunak izan ziren. Azterketako hiru egunak hegan pasatu zitzaizkidan, baina aurreko egunetan oso urduri egon nintzen. Azterketa egin eta nota jakin arteko egunak ere gogorak dira. Etxekoak asko lagundu didate, eta eskerrak eman behar dizkiet. Aldatzeko irakasleek ere gomendio asko eman dizkirate, eta haiek ere eskertu nahi ditut.

### **Ikasteko zein metodologia erabiltzen duzu?**

Antolakuntza da garrantzitsua. Adibidez, historia ikasteko, lehenengo zenbat orrialde

dauden begiratzen dut, eta hori ikasteko zenbat denbora daukadan kalkulatu dut. Materia altuan irakurtzen dut, behin eta berriz errepikatuz eta ulertuz. Ulertzea ezinbestekoa da, eta zerbait ez bada ulertzen galdetu egin behar da. Ulertzen ez dena ikastea oso gogorra da. Niri zutik eta oinez ikastea gustatzen zait. Etxean zehar ibiltzen naiz liburua eskuetan hartuta. Etxekoek sekulako pazientzia dute nirekin!

### **Nota hori ateratzeko gauza asko utzi behar izan dituzu?**

Bai, ahalegin handia egin behar izan dut. Ikasteko erraztasun apur bat ere badaukat, baina notaren %90 ahalegina izan da. Laz irakurri nituen nota onenak atera zituztenen elkarrizketak, eta haiek ez zutela ezer utzi esan zuten, baina nire kasua oso bestelakoa izan da. Aurten, esate baterako, Gabonetan eta Aste Santuan ez dut oporrik eduki, egun guztiak ikasten pasatu ditudalako. Baina merezi izan du, eta egindako ahaleginak eman du bere fruitua. Nik beti pentsatu dut egin ahal den guztia egin behar dela, eta nik hori egin dut. Batxilergoan hasi nintzenean konturatu nintzen azken astean ikasteak ez zuela ezertarako balio, eta nota onak ateratzen segitzeko ahalegin handiagoa egin behar nuela. Ez naiz damutzen. Festa eta parandarako denbora gero ere izango dut, eta adinean aurrera joan ahala ikastea zailagoa da. Egindakoaz harro nago, baina emaitzagatik baino gehiago, egindako ahaleginagatik.

### **Beka bati esker, Europan zehar egin duzu bidaia. Nolako esperientzia izan da?**

Oso ona. Madrilgo Francisco de Vitoria unibertsitateak bideratutako beka da, unibertsitatearen historia eta jatorria ezagutzeko. Hainbat ikastetxetera bidaltzen dute gonbidapena, eta ikastetxe bakoitzak hiru ikasle aurkezten ditu beka jasotzeko. Aldatzen ni izan nintzen horietako bat, eta eskerrak eman nahi dizkiet irakasleei. Ohore bat izan da. Beste 50 ikaslerekin egin dut hiru asteko bidaia Europan zehar, eta oso interesgarria izan da.

### **9'8 notarekin unibertsitateko ate guztiak ireki zaizkizu.**

Bai, baina nik argi neukan zer nahi nuen ikasi. Kazetaritza eta ikusentzunezko gradu bikoitza egingo dut Madrilgo Francisco de Vitoria unibertsitatean. Eskola pribatua da, eta beka sistemari esker, ikasketak ordainduko

dizkirate. Lau urteko ikasketak dira, eta alor teorikoa praktikoarekin uztartzen dute. Kazetaritza ikasteko leku egokia da Madril, eta hemen baino aukera gehiago dago lanerako. Niri, gainera, hiri handiak izugarri gustatzen zaizkit.

**“Denetik idazten dut, baina batez ere gai politikoak eta ekonomia gustatzen zaizkit”**

### **Etorkizunean, beraz, kazetaria izan nahi duzu?**

Bai, horixe da nire bokazioa. 10 urte nituela erabaki nuen kazetari izan nahi nuela. Telebistako albistegi bat ikusten ari ginen, eta amari esan nion nik ere albistek ematen lan egin nahi nuela. Horretarako kazetaritza ikasi behar nuela esan zidan amak, eta bide hori jarraitu dut. Politika ere izugarri gustatzen zait, eta kazetaritza eta zientzia politikoak ikastekotan egon nintzen, baina gradu bikoitzaren aukera ikusi nuenean haren aldeko apustua egin nuen. Ikasketa honek kamara-aren aurrean eta atzean egoteko aukera eskainiko dit, hau da, albistegiak aurkezten edota albistek idazten. Bi aldeak ditut gustuko, baina bereziki, irratia gustatzen zait. Idaztea ere gustuko dut, eta blog txiki bat daukat praktikatzeko. Denetik idazten dut, baina batez ere gai politikoak eta ekonomia gustatzen zaizkit.

### **Denbora librean zer gustatzen zaizu egitea?**

Irakurtzea bizio bat da niretzat. Lagunekin zinera joatea edo kafe bat hartzea irteera ere gustuko dut, eta baita bidaiatzea ere. Musika ere izugarri gustatzen zait.

### **Urriari hasiko zara unibertsitatean. Nola helduko diozu etapa berriari?**

Urduri nago, baina lasai hartzen saiatuko naiz. Ez dakit zer eraman behar dudan ere! Etxetik joateak ere beldurra ematen du, baina aldi berean pozik eta ilusioz nago. Madril hortxe bertan dago eta autobusak ere sarri daude etxera etortzeko. Nire etorkizuna bideratzen hasteko momentua iritsi da.

# Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

**BARREN**ek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi  
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea,  
Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA  
Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio  
MAKETATZAILEA Zaloa Arnaiz MAKETAREN  
DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK  
Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres  
Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola,  
Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai  
Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus  
Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes  
Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa  
Lendinez, Iñigo Lariz. INPRIMATEGIA Gertu  
Koop. E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA  
SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



## GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Zuretzat

Bilboko ostegunak eta Sanfran, familia, auzolandegiak, harrizak eta lurra, mendia, itsasuan baiñatu eta olatuak hartu, parrandia, pelotia, Zumaia, eurixa eta hotza, San Fermiñak, bioliña, maillasuna, indarra, kemena, Kalamua, garagardua, Iñauteriak, haizia kontratua, kolore arrosa, dantzariak, lagunak, Nafarrua, barixakuak Txurixan, begiak pintatu, topa egin, euskeria eta Euskal Herria, bertsolaritza, etxeko jateak, lehengusuak egin, elurra zapaldu, kale giruaz gozatu, musika eta erritmua, ausardia, amatasuna...

Hitz-zaparrada hau etorri jakun burura lehenguan zutaz gogoratuta. Bai, hilabeteroko osteguneko afarixan kale egin zenduan, baiña, hala ere, gure artian egon zifan, eta barre pixkat ere egin genduan zurekin bizitako momentuak gogoratzen. Hitz zaparrada horrek gauza asko esaten ditu guretzat, eta beste gauza asko geratu dira esan gabe.

Lagun jator eta leiala, asko maitte zaittugulako, hauxe gure omenalditua.

Adiorik ez Leire, bakarrik bixar arte. Betiko orduan betiko lekuan elkartuko gera.

Kuadrilakuak ☺

### Ole, ole eta ole!

Bukatu dira jaixak, eta danok ere irailleko zurrunbilluan ziharo katiatu aurretik, azken begirada bat eman nahi diegu egun edar harei. Beste urte batez, auzolanian eta danon parte hartziari eskerrak jai-egun polit batzuk pasatzeko aukeria eduki dogunez, ezingo gara ba, eskerrak eman gabe geratu.

Bost egunetan makiña bat orduz kañero eta zuritera artian, txoznetako txandak egitteen zuen onena eman dozuenoi, eskerrik as-

ko. Karga haundi bat garala badakigu, eta reberentzia bat, beraz, zuri eta zure furgonetari. Gaztien Eguneko kamisetak, trapu izatetik pasarelako diseinu izatera pasatu zenduzenez, marrazki polit haretatik, txalo bero bat zuri, gure partez. Brigadiari ere, olé! Bestiak jairik jai dabilzanean lanian jardutia ez da goxua izaten, eta hala ere, aurpegi onez erantzun diezue-eta gure eskaera daneri. Presuen alde bazkaldu zenduenori, unblenble! Eta Sigma paella usainez bete zenduen gazte partehartzaile daneri, ibaixa kolorez jantzi zenduenori, zorionak, eta segi holaxe! Ibaixakin jarraituta, aipamen txiki bat, kontzientzia ustelez, ibaixa zikintzen dozuenori; eta doakizuela hamendik, *nahikua da!* ozen bat, aurpegi lotsiak gorritzen ez dizuen bittartian. Gure artian falta izan zaratenoi, besarkada haundi bat, eta topa zuen omenez.

Eta holaxe; bukatu da, bukatu da; bukatu da, se *acabó!* Datorren urtian, gehixago eta hobeto! Zorionak eta eskerrik asko.

Malako Gune Askea ☺

**DAB**

- Trajeak 70 €, kamisetak 10 €, blusak 30 €, prakak 20 € eta txaketak 50 €
- Arropak 46 tailatik aurrera

**LIKIDAZIOA!**

Oleko onaren plustoz, 5  
Tel.: 943-81-40-40  
[dab@hormailos.com](mailto:dab@hormailos.com) - AZPETA

## ▶ Gazte asanbladak Deba ibaia garbitu du aurten ere



Gazteen Eguneko erreka jai-tsieraren kontura garbitu zuten iaz ibaia asanbladako gazteek, eta aurten ere berdina egin dute. Iaz baino garbiago aurkitu dute eta uretan bizi gehiago nabari dela ere azaldu diote BARRENI. Hala ere, herritarrek ibaira botatako zikinkeria ugari topatu dute eta hortaz, herritarrei errespetuz eta kontzientziaz jokatzeko eskatu diete.

## ▶ Hiru pertsona atxilotu ditu Udaltzaingok

Abuztuaren 14an San Bartolome kaleko denda batean lapurretan ari zirela harrapatu zituen Udaltzaingok hiru atxilotuak. Hala ere, ez da hori egozten zaien lapurreta bakarra. Izan ere, hiru egun lehenago Elgoibarko elkarte batean ere egin zuten lapurretan eta aipatutako San Bartolome kaleko denda horretan lapurtzeko ahalegina ere egin zuten. Hori dela eta, aurreko lapurreta horien egileak, abuztuaren 14an harrapatutako berberak direnaren ustea dauka Udaltzaingok.

## ▶ Goiko Errotako zubitik San Roke kalera joateko bidea zabaldu dute

Denbora gutxian asko aldatu da Goiko Errota zubitik herri barrurako ingurua eta abuztutik aurrera irteera berri bat dauka horko errotondak. Santa Ana kaletik San Roke kalera, joateko eta etortzeko bidearen lanak bukatuta, zabalik dago jada.



## ▶ Sallobenteko jaietako zozketak badauka irabazlea



Abuztuaren 13an egin zuten zozketa Sanlobentearrek, eta 79011 zenbakiaren jabea irten zen irabazle. Txahala edo 1205 euroko sariaren artean aukeratu beharko du, Alberto Olazabal irabazle zestoarrak.

## Udan joandakoak

Hiru protagonistak euren jardunak egin ditu ezagun. Bakoitzak berean, hirurek ere hutsunea laga dute herrian.



61 urte zituela hil zen Ovidio Campello, Elgoibarko PSE-EE taldeko kidea. Uztailaren 24an hil zen, denbora luzean minbiziak jota gairorik egon ostean. Gaur egun udaltxean zinegotzi lanetan denbora gehien zeraman politikaria zen Campello; lau legegalditan izan da eta sozialisten zerrendaburua.



Abuztuaren 2an hil zen Pedro Mari Egaña 'Mintxeta', 63 urte zituela. Harrijasotzen hasi zen 22 urterekin, eta hogei urteren ostean erretiratu zen. Ez zen baina herri kirolen mundutik gehiegi urrundu; aurrez berak hartutako bidean gazteagoei laguntzen, entrenatzaile lanetan eman ditu-eta bere azken urteak.



Jose Luis Belloso, Madalako kapelau moduan ezagutu dute Elgoibarko herritarrek; urte mordoia eman baitzuen lan horretan. Azken urteak erretiratuta eman bazituen ere, tartean tartean Sallobenten eta Sargoaten meza emateari ez zion sekula laga. Abuztuaren 25ean hil zen, 79 urte zituela.

## Trikiti doinuekin hasi du ikasturtea Oin Alaik

Umeekin batera eskolara joateko boluntario faltan dago egitasmoa

**B**alorazio eta nota onarekin bukatu zuen pasa den ikasturtea Oin Alaik, eta aurtengoari ere indarrez, eta musika eskolako trikitilariekin lagunduta heldu dio. laz jasotako erantzun onaren adibide dira joan den urteak utzitako datuok: 120 umek parte hartu zuten denera urte osoan zehar eta 50 boluntario inguruk eskaini zuten beraien laguntza. Gainera, urte bukaeran erabiltzaileek betetako aseptasun inkesten emaitzei erreparatuta, 8,9ko puntuazioa jaso du proiektuak.

### Boluntario beharrean

Umeei eskolara bidean laguntzeko boluntario beharra dagoela jakinarazi dute egitasmoaren arduradunek. 25 pertsonak eman dute izena oraingoz, baina gehiagoren beharra dagoenez, interesatuei izena emateko deia egin diete arduradunek.

Poliki-poliki, pasa den urtean zehar lortu zen egitasmoaren helburuak betetzea. Besteak beste, auto kopurua murriztea, umeen autonomia lantzea eta herritarren



arteko lankidetzaz bultzatzea dira helburuetako batzuk, eta antolatzaileek egindako balorazioak erakutsi du, dagoeneko nabari dela auto gutxiago dabilela eskolako sarrera-irteera orduetan. Horrekin batera, umeen arteko harremanak sendotzeko ere balio izan du Oin Alaik, eta baita eskolara lehen baino esnatuago eta lan egiteko prestuago joateko ere.

### Trikiti soinuan, oinak alai

Lehenengo eskola eguna ez da denentzat gustukoa izaten. Makina bat negar entzuten da txikienen geletan, eta hori gutxitze aldera, edo besterik ez bada, denak ere lehen eskola egunean gogotsuago egoteko asmotan, musika eskolan trikitia eta panderoa ikasten dihardutenen laguntza izan zuten irailaren 6an.

## Tuning jaia antolatu du Zubibai elkarteak Altzolan domekarako



30 ibilgailuk hartuko dute parte estreinakoz Altzolan egingo den Tuning kontzentrazioan. Horietako bat gainera, ETB2ko "Vaya Semanita" programako *El Jonan*-en autoa izango dela jakinarazi dute antolatzaileek.

Jaia Altzolako aparkalekuan izango da domekan, goizeko 11:00etatik arratsaldeko 17:00ak arte.

### Eskaintza zabala Altzolan

Zubibai elkarteak ekimen kultural ugari antolatu ditu azken hilabeteotan; horren adibide da joan zen astean ikusgai izan zen laburmetraia ere. Aurrez egindako ikusentzunezkoen ikastaro baten fruitua izan da-eta; altzolarrek eurek grabaketan parte hartzeko aukera ere izan zuten gainera.



## Lekua **Ubitarte Bizigunea**



Antzibar enpresak 32 etxebizitza eraikiko ditu Ubitarte Bizigunean. Bi eta hiru lo-gelako etxeak izango dira, eta horietako sei, duplexak. Beheko solairuek terraza za-balak izango dituzte, eta garajetik zuzenean etxera sartzeko aukera izango dute. Era berean, 70 garaje edo txoko eraikiko dituzte. Guztira hiru portaletan banatuta egongo dira etxeak, eta prezioa 230.000 euro ingurukoa izango da. Obrak berehala hasiko dira, eta 24 hilabeteko epean amaitzea aurreikusi dute.

## Irudia **Karabanentzako aparkalekua**

Karabana eta autokarabanen ugaritzeak makina bat arazo sortu ditu azkenaldian Elgoibarko zenbait auzotan, eta horri irtenbidea emateko 6.500 metro koadroko aparkalekua egiten ari dira Erretxindin. Guneak 2,5 metroko altuerako horma izango du ibilgailuen segurtasuna bermatzeko, eta horrez gain, argiak eta bideo kamerak ere jarriko dituzte. Bestalde, ibilgailuak barrutik zein kanpotik garbitzeko zerbitzua egongo da aparkalekuan, eta ur depositoak bete eta hustutzeko sistema ere jarriko dute. Guztira ehun bat ibilgailurentzako lekua egokituko dute, eta prezioa egun kopuruaren araberakoa izango da.



## **Dantza latinoen ikastaroa irailaren 14an hasiko da**

Irailaren 14an hasiko da dantza latinoen ikastaroa, eta bi ordutegi egongo dira aukeran: astelehen eta asteazkenetan, 20:30etik 21:30era, edo astearte eta ostegunetan, 15:00etatik 16:00etara. Patronatuko bazkideek 35 euro ordaindu beharko dituzte hilean, eta gainerakoek, 40 euro.

## **Kantabriara irteera antolatu du jubilatuen egoitzak**

Jubilatuen egoitzak Kantabriako San Vicente de la Barquera herrira irteera antolatu du irailaren 22rako. 8:15ean irtengo da autobusa Plaza Handitik, eta iluntzeko 19:00ak alderako itzuliko da. Bazkideek 34 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek, 40 euro. Interesatuak jubilatuen egoitzan eman dezakete izena.

## **Miski elkartearen zozketan saritutako errifak**

Cuscoko (Peru) umeak eskolatzeko diru-bilketako zozketaren zenbakiak jakinarazi ditu Miski elkarteak. Saridunek herriko hainbat jatetxetan bi laguntzako jatordua jasoko dute. Hauek dira zenbaki irabazleak: 107 (Belaustegi), 3.409 (El Gautxo), 4.013 (Gabi), 1.016 (Ibai Ondo), 2.508 (King-Kong), 2853 (La Bodega), 3.770 (San Pedro), 2.389 (Sigma), 2.025 (Txarri-duna) eta 2.048 (Usatorre).

## **Helduen Eskolan matrikula egiteko epea irailaren 14an amaituko da**

2011-2012 ikasturterako Helduen Alfabetatze Eskolan izena emateko epea irailaren 14ra arte egongo da zabalik. Besteak beste, oinarriko alfabetatze ikastaroak, kultura orokorreko saioak eta eskola graduatua eskuratzeko ikastaroak eskainiko dituzte. Informazio gehiago eskuratzeko 943 740 880 telefonora deitu daiteke.



## LEIRE UGARTEBURU GABILONDO

*Gazterik egin zenigun agur  
baina zure etxeko eta lagunok  
mendi gailurretako bakean  
eta olatuen gaineko aparrean  
aurkituko ditugu zure  
alaitasuna eta kemena*

**Beti gurekin**

2011- 08- 18

ESKERTZA



## LEIRE UGARTEBURU GABILONDO

2011ko abuztuaren 18an.

*“Leire Ugarteburu Gabilondoren senitartekuek bizi  
dozuenaren aurrian, Arnaldo Askatu Politika Askatu  
herri ekimeneko kidiok zuekin bat egin nahi dogu”*



ESKERTZA



## LEIRE UGARTEBURU GABILONDO

2011ko abuztuaren 18an.

*“Ez zaitugu inoiz ahaztuko.  
Bihotz Taupadaren barrenean eramango zaitugu betiko”*

Joxemari eta Edurne (Taupada)



ESKERTZA

## LEIRE UGARTEBURU GABILONDO



*Minaren erdian ere  
zuekin goaz  
maitasunaren bidezidorretan.*

Amaren paseoko lagunak

2011ko abuztuaren 18an hil zen.



## Jende asko ibili da San Antolin jaietan

**E**guraldiak gehiegi lagundu ez badu ere, jende asko ibili da San Antolin jaietan. Antolatzaileek adin eta mota guztietako herritarrentzako egitaraua prestatu dute, eta bakoitzak izan du non aukeratu: bertso afaria, mus txapelketa, korrika lasterketa, patata tortilla lehiaketa eta txapel eta oliba hezurren jaurtiketa izan dira, besteak beste, asteburuko ekintzak. Bestalde, ondorengoak dira jaietako errifaren zozketako zenbaki sarituak: Lehen saria, 4150 (Jose Etxeberria *Ballibar*) eta bigarren saria, 4747 (erreserbakoa, 4165). **Argazki guztiak eta bideoa ikusteko: [www.elgoIBAREN.net](http://www.elgoIBAREN.net)**



David Garciak irabazi zuen. Larizek 3. egina zuen, 20:17 denborarekin.



140 lagun inguru batu ziren Mañukortak, Iker Zubeldiak, eta Maialen Lujanbiok girotutako bertso afarian.



Jose Antonio Ruiz izan zen Karkizanoko aldapa igotzen lehenengo eta ardo botila kaxa irabazi zuen.



Zortzi tortilla aurkeztu zituzten lehiaketara eta epaimahaiak ez zuen lan erraza izan.



Imanol eta Eneritzek irabazi zuten patata tortilla txapelketa.



Giro bikaina izan zen txapel eta oliba hezurren jaurtiketan. Eneko Loiola eta Gari Uzkudun izan ziren irabazleak.



41 korrikalariaren artean, David Garcia izan zen onena, 19:45 denborarekin Nesketan, Ainhoa Lendinezek irabazi zuen, 24:17 denborarekin.

# ASTO -

Urriak 14 eta 15

## URRIAK 14, ostirala

**19:00** Asto-kaka karparen irekiera

- Pintxoak eta edariak
- Musika

**20:30**etik aurrera: Afari-mokadua

- Razioak, postrea...

**22:30** Kontzertua:

- Txalapartariak
- Mari Juli eta Agurtzane
- Hankahutsik!
- K-104
- Napoka Iria
- ...

Danok irabaziko dogu BA

# KAKA

Plaza Txikia-Leku Eder

## URRIAK 15, larunbata

**11:00** Asto-kaka karparen irekiera  
• Pintxoak eta edariak

**12:00** **ASTO-KAKA JOKOA**

**14:30** Baba-jana herrikoia  
• 25€ (20€, Elgoibarko Izarrako bazkideek)  
• Bazkarirako izena urriaren 7a baino lehen eman behar da.

**17:00** Dantzaldi-erromeria,  
MP5 taldearekin

**20:00** etatik aurrera: DJ jaia,  
Asto-kakari amaiera emateko

# RREN! Etorri eta gozatu!

## Kirol argazkien lehiaketak baditu irabazleak

**G**azteria Sailak eta Kirol Patronatuak Ongarri argazkilari taldearen laguntzaz antolatutako lehiaketak baditu irabazleak. Kategoria bakoitzeko irabazleak 300 euroko saria jaso du, eta bigarrenak 200 eurokoa. Era berean, Elgoibarko argazkilarien saileko irabazleak 200 euro jaso ditu. Orri honetan dituzue saritutako erretratuak.

Bestalde, 2012ko egutegia osatzeko argazki lehiaketa martxan dago, eta interesatuek urriaren 17ra arteko epea dute erretratuak aurkezteko. Elgoibarrekin lotura duten argazkiak izan behar dira, eta saridun bakoitzak 65 euro jasoko ditu.


1. saria: Javier Fernandez (Berango)



2. saria: Emilio Muñoz (Bilbo)



35 urtetik beherakoen 1. saria: Itziar Larrañaga (Getaria)



35 urtetik beherakoen 1. saria: David Vicente (Donostia)

Elgoibartarren saria: Jairo Berbel (Elgoibar)

## Irailaren 17an izango da aurtengo Gau Krosa

Izen-emate epea hilaren 15ean amaituko da

**M**intxeta atletismo taldeak Gau Krosa antolatu du irailaren 17rako. 20:00etan hasiko da lasterketa Plaza Handian, eta partaideek zortzi kilometroko ibilbidean egin beharko dute korrika. Interesatuak irailaren 15era arte eman dezakete izena [www.mintxeta.com](http://www.mintxeta.com) webgunean. Hala ere, egunean bertan ere egongo da izena emateko aukera. 16 urtetik gorako edonork hartu ahal izango du parte lasterketa nagusian, baina horren aurretik guraso eta umeen lasterketa ere egongo da. Horrez gain, karpa eta musika jarriko dituzte, giroa alaitzeko.

laz hasi zen Mintxeta atletismo taldea Gau Krosa antolatzen, Juan Mugertza



Nazioarteko Kroserako dirua batzeko. lazko edizioan Pedro Maria Muñoz del Pozo azkoitiarrak irabazi zuen.

### Jaioberrientzako igeriketa ikastaroa

Irailaren 16an hasiko dira jaioberrientzako igeriketa ikastaroak Olaizaga kiroldegian, eta abenduaren 2an amaituko dira. Bazkideek 120 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek 156 euro. Interesatuak irailaren 12a baino lehen eman beharko dute izena, kiroldegian.

### Gorbeira irteera antolatu du Morkaikok

Morkaiko mendizale elkarteak Gorbeira irteera antolatu du irailaren 18rako. Bi aukera egongo dira: nahi duenak oinez egin dezake bidea, eta bestela, mendi bizikletaz joateko aukera ere bada. Irteera 7:30ean egingo dute Plaza Handitik. Bazkideek 7 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek 10 euro.

## Spinning maratokia egingo dute zapatuan Mintxetako igerilekuan

**A**ire libreko igerilekuen denboraldiari amaiera emateko, spinning maratokia antolatu du Udal Kirol Patronatuak zaturako. Aurreko saioak bezalaxe, Mintxetan egingo dute maratokia, goizeko 10:00etatik aurrera. 50 minutuko bi saio prestatu dituzte, eta norberak aukeratu ahal izango du saio bakarrean ala bietan parte hartu. Parte hartzea doan izango da. Interesatuak Mintxetako harreran eman beharko dute izena, eta bihar amaituko da izen-emate epea.

## Elgoibarko igerilariak Getaria-Zarautz trabesian

Urtero bezala, Elgoibarko hainbat igerilarik hartu zuten parte Getaria-Zarautz trabesian. Hona hemen haien denborak:



- David Soto	48:54
- Humberto Fernandez	50:35
- Ibon Serrano	53:36
- Iñigo Canales	56:19
- Ion Errasti	56:30
- Jose Angel Agirre	57:03
- Migel Angel Arozena	1:00:47
- Andres Alberdi	1:00:47
- Mikel Arriola	1:00:52
- Oier Rubio	1:01:42
- Gorka Muruamendiaraz	1:02:44
- Iñigo Barrenetxea	1:04:24
- Cristina Bacaicoa	1:06:14
- Sergio Rodriguez	1:07:47
- Joseba Konde	1:16:42
- Eduardo Santos	1:28:31

# Aitor Fernandez De Jauregi

“Pirmin”

MAUXITXA TXARANGAKO MUSIKARIA



“Ez dut ezagutu Txiki Eguna txarangatik kanpo”

Saxofoia eskuan ezagutu dute jaietan txarangarekin batera dantza egitea maite dutenek. Berak ere, saxofoia eskuan ezagutu ditu jaiak. 1986ko abenduaren 27an debutatu zuen Mauxitxarekin eta aurtengoarekin 25 Txiki bete ditu. Gaur egun txarangan denbora gehien daraman partaidea da Pirmin; eta aurten Txiki Egunean bere kideek omendu ere egin duten arren, oraindik ere txaranga-urte asko geratzen zaizkiola ikusten du berak. Gazte artean gustura sentitzen da, eta norbera gustura dabilenean, urteek ez dute trabarik egiten.

Ainhoa Mendibil Artetxe

25 txiki bete dituzu eta txarangan sartu zinenetik 25 urte beteko dira abenduan. Zerk egiten dizu ilusio handiagoa?

25 Txiki bete izanak. Azken finean urteak pasatzen joaten dira, eta bai, 25 bete ditut, baina beno. Txaranga jaietan dauka indar gehien, eta Txiki Egunean batez ere. Egun hori beti izan da berezia niretzako, eta ilusio gehien ere horrek egiten dit.

Gaur egun txarangan denbora gehien daramana zara, dezente gazteagoak dituzu inguruan. Horrek ez du ikara pixka bat ematen?

Koadrilakoek adibidez aspaldi esan zida-

ten badela ordua txaranga lagatzeko, gazte pila bat ere badago izatez, baina ni gustura nabilen bitartean, ez dut senti-

tzen lagatzeko beharrik. Gaztetu ere egiten naiz beste guztien inguruan. Pentsa, Beñat Konde, txaranga beste partaide bat –eta ez gazteena-, nik txarangan debuta egin eta hurrengo egunean jaio zen. Aldea badago, baina gustura nabil.

Ez dizu inoiz inbidiarik eman Txiki Egunean kalera batera ardura gabe irteten denak?

Ez, ez, inoiz ere ez. Nik ez dut ezagutu Txiki Eguna txarangatik kanpo. 15 urterekin sartu nintzen Txarangan, eta 14 urte nitueneko Txiki Eguna, ez dut gogoratu ere egiten.

“Garai batean Txiki Eguneragrupa eginda iristen ginen”



### **Badaukazu Txiki Egunaren aurretik egin beharreko erriturik?**

Bai. Esandako bezala, Txiki Egunaren bezperan gaupasa egiteari utzi nionetik, beste gauza bat da. Azken bost urteetan berdina egin dut urtero. San Bartolome egunean pilota partidua ikustera joan, handik irtetean pare bat trago hartu, etxera joan, afaldu eta ohera. Gaueko 22:00etarako ohean egoten naiz ondo deskantsatzeko.

### **Gogoratzen duzu Txiki Egunen bat bereziki?**

Bai. Denak ere ondo gogoan ditut, baina gogoratzen dut bat, oso tristea izan zelako, eta beste hiru nire urtebetetze eguna tokatu zelako. 18, 24, eta 30 urte bete nituenean izan ziren horiek. Eta horietaz gain, 97. urtekoa gogoratzen dut tristea bezala, Aitor Larrea hil zelako urte horretako San Juan egunean. Txarangako partaide bat zen Aitor, eta hura golpe handi bat izan zen guztiontzat. Egun hura gogorra izan zen.

### **25 urtean, beti izan da horren luzea Txaragaren kalejira?**

Ez, poliki-poliki eman dira aldaketak. Ni hasi nintzenean ez zen horrenbeste luzatzen. 14:30ak inguruan lagatzen genion jotzeari. Baina gero, Txarangak 25 Txiki bete zitue-

nean, ordura arte Mauxitxan jardundako denok irten ginen jotzera; 50 lagun inguru, eta orduan eman zen aldaketa. Momentuan motibatuta geunden, eta segi eta segi egin genuen, 17:00ak iritsi arte. Eta noski, behin hori eginda, hurrengo urtean ezin ba gutxiagorekin laga jendea. Hasieran gehiegi iruditzen zitzaigun guri, baina dagoeneko ohitu ere egin gara 17:00ak arteko kalejirara.

## **“Txiki Egunaren bezperan, gaueko 22:00etarako ohean egoten naiz”**

### **Hori da aldatu den bakarra?**

Ez, ez. Parranda egiteko modua ere asko aldatu da. Garai batean Txiki Eguner gaupasa eginda iristen ginen. Nire lehenengo hamar-hamabost Txikiak gaupasa eginda

pasa nituen. Askotan gainera zezeneko ordua aprobetxatzen genuen lotara joateko, bagenekien-eta, kalejira luzea zela gero. Bazkalostean baina, akabatuta bukatzen genuen; orain egia da, arratsaldetik aurrera ere asko gozatzen dugula. Orain deskantsatuta iristen gara kalejirara.

### **Aldaketaz aldaketa, Txiki Eguna aparte lagata, aurten ere asmatu duzue zerbait berria jaietarako, ezta?**

Bai, gazteen kontua izan zen hori ere. Benetako ‘espiritu txarangeroa’ daukate gazteek eta hori igarri egiten zaie. Ni kalean nenbilela deitu zidaten, eta horrela, bat-batean animatu nintzen. Kontua da sarritan aipatu izan dugula gure artean, Elgoibarko jaiak ez daukatela bukaera bat. Garai batean suak egoten ziren eta horiek ematen zieten amaiera, baina gaur egun ez dago horrelakorik. Orduan, eliz atarian elkartu ginen txarangako zazpi, eta 22 bat lagun jaiak denon artean agurtzeko. San Bartolomei zapia jarri eta kentzea zen gure asmoa, baina goregi zegoela-eta San Antoni jartzen bukatu genuen. Auskalo, baliteke hemendik bost urtera ia-ia ohitura bihurtu izana jaien agur hau.



*Atzean: Iñaki Zabala, Anton Iranzo, Raul Gonzalez, Rodolfo Gonzalez, Aitzol Arriola, Juanma Saez, Jesus Mari Gabilondo, Miguel Angel Arozena, Aitor Fdez. De Jauregi “Pirmin”, Jon Zabala, Alberto Ansola “Mauxitxa”, Aitor Larrea, Javier Saez, Iñaki Uribe, Bittor Alberdi, Jose Mari Kortaberria, Pedro Zapata. Makurtuta: “Fonta”, Luis Kortabitarte, Juan Carlos Larreategi, Gorka Mugika, Laurentzi Gorostiza, Eduardo Osoro “Katxo”, Iñigo Aranbarri, Unai Cuesta.*

## Herritarren inplikazioak eta konpromisoak ‘kalitatezko jaiak’ ospatzen lagundu duela adierazi du Udalak

Krisiaren eraginez herritarren presentzia eta kontsumoa gutxitu dela diote ostalariek

**S**an Bartolome jaiak amaitu ostean balorazioa egiteko ordua iritsi da, eta Udalak balorazio positiboa egin du. Alfredo Etxeberria alkateak esandakoaren arabera, herritarren inplikazioari eta konpromisoari esker “kalitatezko jaiak” izan dira aurtengoak, eta Elgoibar “bizi-bizixa” egiten lagundu dute. Azken urteetan bezala, krisi ekonomikoak eragina izan du jaietan, eta ondorioz, programazioan aldaketak egin behar izan dituztela azaldu du alkateak. Aurtengo jaiak 146.000 euroko aurrekontua izan dute, iaz baino %5 gutxiago. Hala ere, Etxeberriaren esanetan, ekitaldi kopurua eta horien kalitatea mantentzeko ahalegina egin dute, eta berrikuntza modura, musika saio batzuen ordean, ikuskizun eszenikoak ekarri dituzte aurten. Antolatzaileen esanetan, “jende dezente” batu da ikuskizun horien bueltan. Krisiari lotuta, herritarren presentzia eta kontsumoa aurreko urteetan baino txikiagoa izan dela adierazi dute ostalariek.

### Hiri segurtasuna

Herritarren segurtasunari dagokionean, herritarrei laguntza eskaintzea, salaketak kudeatzea, kale iskanbilak baretzea eta identifikazioak egitea izan da Udaltzaingoaren betebeharra. Iaz izandako gertakariekin alderatuta, aurten laguntza eskaera gutxiago egon dira, 11 (iaz, 33), baina salaketa gehiago jaso ditu Udaltzaingoak, 23 (iaz, 12). Kale iskanbilek 5 izan dira aurten eta iaz, 3. Identifikazioei dagokionean, iaz 8 izan ziren



eta aurten 16. Era berean, sokamuturrean eta zezenak girotutako jardueretan ez da zauritu larririk izan, eta Udalak balantze “oso ona” izan dela aipatu du.

Bestalde, aipamen berezia egin diote Baserritarren Eguna-ri, eta bereziki gazta lehiaketari, urtetik urtera parte hartzaile gehiago izaten dituelako. Horrekin batera, txikieneztat antolatutako ekintzek estimazio handia izan dutela gaineratu dute.

Azkenik, Malako Jai Batzordeari “eskerrik zintzoena” eman dio Udalak, jaietan izandako inplikazioa eta parte-hartzeagatik. Zorionak ematearekin batera, aurrerantzean denon ahaleginak batzeko itzaropena dutela gaineratu du Etxeberriak.

ESKERTZA

## FRANCISCO JAVIER GARCIA HOYAS



*Mutikotan etorri zinen  
San Migelgo familia handituz  
Maitasunez kalera jaitsi,  
zure sustraiak errotuz,  
Valentzia ta Madriletik pozez  
ametsak egi bihurtuz,  
guztiok bat egingo dugu  
zure oroitza bizi mantenduz.*

2011ko uztailaren 30ean hil zen. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



# Iñaki Konde izango da Elgoibarko Izarrako presidente berria

Ander Soraluzek bete zuen kargu hori joan zen maiatzera arte

Lehenago ere izan zen Iñaki Konde Elgoibarko Izarrako presidentea 90. hamarkada inguruan eta orduan bezala, oraingoan ere erronkari gustura helduko diola adierazi dio BARRENI. Iñaki irakaslea den arren, gaur egun Lanbide Hziketako ikasle eta irakasleentzako liburuak prestatzen dituen Laneki elkarteko presidente karguan dihardu.

## Ohore bat

Konde, elkarteari laguntza eskaintzeko asmotan joan zen Elgoibarko Izarrako dinamizatzailearengana eta eskaintza horren ostean etorri zen elkartearen eskaera. Presidente berriak adierazitakoaren arabera, berarentzat ohore bat izango da Elgoibarko Izarrako presidentea izatea. Orain hasi eta 2013ko abenduaren 31ra arteko lanak betetzeko konpromisoa hartu du Kondek. 2013an, Elgoibarko Izarrak 50 urte betetzen dituzenez, urteurrena amaitu arte luzatuko da oraingoz, bere kargaldia.

Imanol Larrañaga, Elgoibarko Izarrako dinamizatzailea, oso pozik agertu da Iñakiren erabakiarekin. Izendatu berriak,



eskarmentu handia eta elkarteari emateko asko daukanaren segurtasuna dauka-eta elkarteak.

## 'Darkness' argazki erakusketa egongo da ikusgai Kultur Etxean bihartik aurrera



Adrián Ruiz de Hierroren lana da bihar hasi eta hilaren 24ra arte Kultur Etxean ikusgai egongo dena. Ongarri Argazkilari Elkarteak antolatu du erakusketa, eta antolatzaileek esandakoaren arabera, autoreak leku lasaien bila gauean norabide gabe ibilitako momentuak harrapatzen dituen lana da.

Argazkilariaren esanetan, inkontzientetik sortutako lana da, sentitzeko beharretik. Bere buruari pentsatu gabe sentitzeko baimena emateko era bat da lan hau Ruiz de Hierrorentzat.

Erakusketa bihar hasi eta hilaren 24ra arte egongo da ikusgai, arratsaldeko 18:30etik 20:30era bitartean.

## Zinemaldia Herriko Antzokian

Ongarri Zine Klubak lau film eskainiko ditu irailaren zehar Donostiako zinemaldiaren harira. Denak ere, 2011ko udaberrian eta udan, Espainian estreinatutako pelikulak dira eta irailaren 15ean izango da lehenengoa, 'Tournée', Mathieu Amalric zuzendariaren filme frantsesa.

## Hastear dira Hip Hop klaseak

Ikasturte berriarekin batera, datorren irailaren 12tik aurrera martxan izango dira berriz ere Maria Escobedok Olaizaga kirolegian eta Eibarren eskaintzen dituen Hip-Hop dantza klaseak. Hirugarren ikasturtea da hasiberri den hau, eta gero eta jende gehiago animatzen da dantzara. Astelehen eta asteazkenetan izango dira klaseak; horien artean baina, bi aukera daude. 17:00etatik 18:00etara lehenengoa, eta 20:00etatik 21:00etara bigarrena.

**LANA**

**ESKAERA**

- Emakumea edozein lan egiteko prest. ☎ **650 152 866**
- Neska umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Interna edo orduka. ☎ **646 821 678**
- Magisteritza eta EGA tituludun neska Lehen Hezkuntzako klase partikularak emateko prest. (Euskara, gaztelania, ingelesa...). ☎ **659 024 427**
- Alemaniera klaseak ematen ditut, haur eta helduentzako. ☎ **647 275 374**
- Neska euskaldun lizentziatua umeak zaintzeko edo ikasketetan laguntzeko prest. Irakaskuntzan, begirale eta umezain lanetan esperientzia handia. ☎ **697 322 306 / 943 531 579 (Enara)**

- Emakumea garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **630 372 882**
- Gizonezkoa lanerako prest. ☎ **685 212 060**

**ESKAINITZA**

- Malape tabernarako zerbitzaria behar da. Esperientziaduna. ☎ **686 771 339**

**ETXEBIZITZAK**

**ALOKAIRUA**

- Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarko erdigunean. ☎ **696 944 813 / 626 752 558**
- Etxea hartuko nuke alokairuan, ahal izanez gero, hiru logelatakoa. ☎ **671 289 584**

- Bi logela alokagai Elgoibarren. Pisu partekatua. ☎ **679 843 332**

**SALMENTA**

- Aukera ezin hobea! Oso merkea! Pisia salgai Sigman. Premiazkoa, pertsona nagusiak residentziara joan beharra duelako. Berogailu sistema eta berrikuntza askorekin. ☎ **699 953 021**

**BESTELAKOAK**

- McLaren markako umeentzako auto tolesgarria salgai. Egoera ezinhobean. 60 euro. ☎ **678 386 033**
- Uztailan belarritako bat aurkitu nuen hilerrian. ☎ **651 706 756**

ESKERTZA

**JOSE ANDRES IRIONDO URKIOLA**



2011ko uztailaren 24an hil zen.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

**MARI CARMEN TOMAS FURRIOL**



2011ko abuztuaren 31n hil zen.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

**MARI CARMEN TOMAS FURRIOL**




*Nahiz eta urrun joan mundu honetatik  
ez duzu alde egingo gure bihotzetatik.*

Jabierren lagunak

2011ko abuztuaren 31n hil zen.





• Zorionak gure etxeko txikiari, eta muxu handi bat denon partez.



• Zorionak, **Maialen**, abuztuaren 11n 4 urte egin zenituelako. Amatxoren eta aitaixoren partez.



• Zorionak, **Saretxu**, gaur 2 urteko egin dituzulako. Bi muxu handi etxekoan partez, mari mondongi.



• Zorionak, **Lidia**, bigarren aldiz birramona egin zaituztelako. Koadriakoen partez.




• Zorionak, **Maren**, zure laugarren urtebetetzeari. Familiakoan, eta bereziki, anaia Alainen partez.



• Zorionak, **sorgintxo!** Dagoeneko 2 urte! Bereziki, Naia, Intza eta Malenen partez.



• Zorionak, **Unaitxo** bakero, bihar 3 urte beteko dituzulako. Nora, aitaixo eta amatxoren partez.



• Zorionak, **Maialen eta Beñat**, irailaren 13an 6 eta 4 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat etxeko guztion partez.



• Oso ondo pasatu genuen zuen urrezko eztaietan! Jarraitu horrela!



• Zorionak, osaba **Iñaki** uztailaren 30ean urteak egin zenituelako. Zorionak, baita ere, **Mireni**, irailaren 2an 3 urte egin zituelako.

**Erretratu bakarreko agurra: 3 €. Argazki bikoitza: 5 €. Hirukoitza: 7 €. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €.**

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu.

BARRENEKO bulegora 12:00ak baino lehen, [edobarren@elgoibarkoizarra.com](mailto:edobarren@elgoibarkoizarra.com) e-postara bidali.

# LAGUNAK KOLTXOI DENDA-TEXTIL HOGAR

## 15 urteko bermea zure koltxoi berrian!

**Erraztasun osoz,  
agiririk egin gabe!**

**%10etik %25era  
arteko beharpenak:  
koltxoi, somier,  
ohe elektriko,  
ohe azpiko kutxa  
eta abarretan.**



San Roke kalea, 20 - Tel.: 943 744 457 - ELGOIBAR - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)



## 9 barixakua

### Erakusketa

20:00 'Darkness'

Adrián Ruiz de Hierroren argazki erakusketa. Kultur Etxean, hilaren 24ra arte.

## 11 domeka

### Jaia

11:30 Tuning eguna

Zubibai elkarteak antolatuta, Altzolako aparkalekuan.

## 15 eguena

### Erakusketa

17:00 Argazki erakusketa

Atxutxiamaikaren udako erretratuen erakusketa. Kultur Etxean.

ZINEA

«Tournée»  
(Ongarri  
zine-kluba)

15, eguena: 21:30  
16, barixakua: 22:15

### OKINDEGIA

19 domeka **FOTERO**  
11 domeka **IBARRENEA**

### FARMAZIAK (24 orduz)

8	Ibañez
9	Garitaonandia-Bidasolo
10	Etxeberría (Santa Ana)
11	Etxeberría (Santa Ana)
12	Fernandez
13	Yudego
14	Zabaleta
15	Etxeberría (Errosario)
16	Ibañez
17	Garitaonandia-Bidasolo
18	Garitaonandia-Bidasol

#### Fernandez

Herriko enparantza 4,  
Garagartza (Mendaro)  
Tel: 943 756 142

#### Ibañez- Rekalde, 1 (Soraluze)

Tel: 943 751 638

#### Zabaleta- Kalebarren, 9

(Soraluze)  
Tel: 943 751 384



### Bazkide izateko lehen epea irekita!

Irailetik uztailetera arte-  
ko kuota, 45 euro.

Familia ugariarentzat

%30eko deskontua!

**ANIMA ZAITEZ!**

### Berriz ere martxan!

Asteartea, asteazkena,  
osteguna eta igandea:

17:00 - 20:00.

Ostirala eta larunbata:

17:00 - 21:00



### I. URTEURRENA

## ALEJANDRO ACEREDA IRIONDO



2010eko irailaren 4an hil zen, 77 urte zituela.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, irailak 10,  
arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari.

Joango zaretanoi eskerrak alde zuretik.



### ESKERTZA

## JOSE LUIS BELLOSO ULACIA



2011ko abuztuaren 25ean hil zen.

Bihotzez eskertzen ditugu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



### ESKERTZA

## JULIA GABILONDO ELCORO-IRIBE



2011ko irailaren 4an hil zen.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



# K.E.Y.

## hizkuntza akademia

Trenbide kalea, 19 behea



CAMBRIDGE  
Unibertsitateko  
Azterketetarako  
Batzordeko kidea ES438

## 2011-2012 ikasturtea

Ingeles, frantses eta aleman eskolak

- Maila guztiak
  - Laguntza eskolak
  - Haur eta gazteentzako taldeak
  - Talde homogeen eta mugatuak
  - Ikus-entzunezkoak
- Cambridge azterketen prestakuntza
    - YOUNG LEARNERS
    - KET
    - PET
    - FIRST CERTIFICATE
    - ADVANCED

Irailaren 15ean ikasturte hasiera

### MATRIKULA EPEA ZABALIK Informazioa:

Telefonoz deituz:  
943 743 044 - 653 825 606  
edo

Akademian:  
**ARRATSALDEZ** (17:00 - 18:30)

### 2011-2012 IKASTURTEA MATRIKULA ZABALIK

#### IKASTAROAK

- Aurrez aurrekoak
  - 2, 3 edo 4 egun ostean
- Autolikazkuntza Internet bidez

#### IKASTARO BEREZIAK

- Erpateak
- AISA [Etorriak]
- Merkatarik eta osalaritza

#### AZTERKETETARAKO PRESTAKETA

- Perflak (Administrazioa, Osoakiletza, Hizkuntza, ...)
- HABÈren 1., 2., 3. eta 4. mailak
- EGA

#### 16 urteik gorakoentzat

#### MATRIKULALDIA

irailaren 23ra arte

#### DIRU-LAGUNTZAK ETA BEKAK

informa zaituz euskaltegian!

#### MATRIKULA ORDUTEGIA

ELGOIBAR: 09:00 - 13:00 / 15:30 - 19:30

Euskara ikasteko,  
Cirkuegi mailgua:  
gaitzez, arnabidez eta gaez.  
Beka sistema eta diru laguntzak ditugu.

### 5 ARRAZOI ON UDAL EUSKALTEGIAN IZENA EMATEKO

- 1 Zure seme-alabei etxeko lanetas laguntza emateko dizu.
- 2 Komunikabideak ulertzen lagunduko dizu.
- 3 Lagun berrak agingo dituzu.
- 4 Lona osatuz lagunduko dizu.
- 5 Eskoraz irakurtzen eta idazten trebatuko zara.

#### Abortuak

- Titulu ofizialak.
- 30 urteko esperientzia.
- Cirkuegi eta erntina mailgak.
- Karriara finantzatzeko beka.
- Ekintza osagarriak.



DEBARE UDAL EUSKALTEGIAN MANKOMUNITATEA

Helbidea: Errepubliko 2  
30670 ELGOIBAR • Tel./Fax: 943 74 37 31  
eiga.metal@udal.elgoibar.net


2011-2012 IKASTURTEA  
Matrikula zabalik  
www.udal.elgoibar.net

# ELKOBI

## Etxebizitzen Kooperatiba



25  
ETXEBIZITZA



PISUAK ETA DUPLEXAK 2 ETA 3 LOGELEKIN  
GARAJEA ETA KAMAROTEA BARNE

**145.000 € TIK AURRERA**

ETXEBIZITZEN ZOZKETARAKO KOOPERATIBISTEN  
KOPURUA BETE ARTE IZEN-EMATEA ZABALIK



San Bartolomé, 3 . 20870 . Elgoibar . Tel.: 943-031168  
elgoibar@evolvisgestion.com  
Ordutegia: Ast-Ost 12:00 - 14:30 / 17:00 - 21:00  
Lar 10:00 - 14:30

